

## **Gipuzkoako Mendizale Federazioko Batzarra (2019-05-02).**

### **Gaia: Aralarren eraikitzen ari diren pista berriak.**

#### **Sarrera.**

GMFren estatutuetako 6. artikuluan zera dio: “GMFk dituen helburuak betetzeko, ondorengo funtzioa ere burutuko duela: m) **Mendian ingurumena babestu eta hobetzeaz arduratzea**”.

2016an eta 2018an bi pista eraiki dira Aralarren. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Enirio-Aralar Mankomunitateak pista gehiago eraikitzeke plan bat onartuta daukate.

Aranzadi Zientzia Elkarteak beti izan da GMFarentzako erreferente zientifikoa mendiko gaien inguruan, Zientzia Elkartek duen prestigioarengatik. Aranzadik pista berrien proiektuari buruzko desadostasuna publikoki adierazi du, besteak beste, Gipuzkoako Batzar Nagusietako 2017-01-13ko agerraldian (Paco Etxeberria, Juantxo Agirre eta Marko Sierra izan ziren) eta GMFak Aranzadiren egoitzan 2017-02-09an antolatu zuen saioan (Juantxo Agirrek eta Marko Sierrak egin zuten aurkezpena) Elkarte zientifiko horren iritzia azaltzeko mendizale elkarteei.

Gainera, bai Aranzadi Zientzia Elkarteak eta bai GMF berak alegazioak aurkeztu zituzten 2016 eta 2018an Aralarren eraiki diren pistekiko desadostasuna adieraziz. Horien erreferentziak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (Goroskintxuko pistari Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean –GAO- 2016-08-24koan; Doniturrietakoa pistari GAO 2018-04-30an) aurkitu daitezke.

Aipatutako iturri eta agerraldi publiko horietan Aranzadi Zientzi Elkarteak zabalduko iritzi eta proposamenak biltzen ditu ondorengo Adierazpenak eta horietan aurkeztu dira GMFaren batzarrean onartzeko gero horren berri Aldundiari komunikatzeko eta GMFaren WEBean erakusteko.

#### **Adierazpena**

Gipuzkoako Mendizale Federazioko Batzarrek Aralarren eraikitzen ari diren pista berrien inguruan zera adierazten du:

1. Artzainek Aralarren egiten duten lana asko estimatzen dugula.
2. Aralar Parke Naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua izateagatik Europako Natura 2000 sare barruan, bere kudeaketaren helburua, natur baliabideak babestu, kontserbatu, leheneratu eta hobetzea dela, bereziki, natur guneak eta flora eta fauna basatiak.

3. Abeltzantza Aralar kudeatzeko tresna bat dela, baina ez bakarra. Ezinbestekoa dela bertako errealitatearen ezagutza zientifikoan sakontzea oinarri sendoen gainean planifikatzeko kudeaketa.
4. Ikuspegi desberdinak eta erabilera desberdinak kontutan hartuko dituen komisio bat sortu beharko litzatekeela Aralarko beharrak aztertu eta erabilpen jasangarri eta orekatu bat izan dezan.
5. Gaurko Aralarko abeltzaintza eredua aldatu beharra dagoela pistak eraiki aurretik, Aralarko parke naturalean eta Kontserbazio Bereziko Eremuan ezarritako kontserbazio helburuetara egokitzeko, bereziki larreen produktibitatea eta ganadu kopuruaren arteko oreka lortzeko eta atzerakorik ez duten ingurumen kalteak eragozteko. Hortaz hori egin arte ez litzateke eraiki behar pistarik.